

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2020ko ekainaren 8tik 12rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: MICHIGANEKO UNIBERTSITATEKO KONFIANTZA



Datuaren analisia


chiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantza-indizea 78,9ra igo da maiatzeko 72,3tik. Alastek, aldiz, 75era igotzea espero zuten. Zundaketaren arabera, konfiantzak gora egin du ainean, familiek koronabirusaren hedapena geldiarazteko itxi ziren negozioen berririkierari nandako erantzunagatik eta kontratazioen gorakadagatik. Hala espektatiben osagaiak nola aingo egoerarenak gora egin dute.

Adierazlearen azalpena

kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen eriazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. chiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera okorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako testan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa statuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: KPI



Datuaren analisia

% 0,1ean kokatu zen maiatzean, iazko hil berarekin alderatuta, eta, beraz, bi hamarren egin behera apiriletik, AEBetako Lan Sailaren Lan Estatistiken Bulegoak argitaratutako datuen abera. Estatu Batuetako urte arteko inflazioak 2015eko irailetik ez zuela hain irakurketa txikia aten, % 0an kokatu zenean. Hona hemen erakundearen azalpena: elikagaiak % 4 garestitu ziren ren, eta mediku-zaintzak % 5,9, ezin izan zuen energiak izandako % 18,9ko uzkurdua orekatu, trolioak eta gasolinak batez ere, prezioa % 33tik gora murriztu zituztenak. Horiek horrela, iergiaren eta elikagaien prezioak kontuan hartu gabe, Estatu Batuetako azpiko inflazio-tasa % 2koa izan zen urteko bosgarren hilabetea, aurreko hilean baino bi hamarren gutxiago. Otsailean, itu hori % 2,5ean kokatu zen.

Adierazlearen azalpena

% hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu a ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin agutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat nditu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa haztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: FEDen BILERA



Datuaren analisia

reserba Federalak interes-tasak % 0 eta % 0,25 bitarteko maila objektiboan mantentzea erabaki en, Jerome Powell presidenteak aurreratutakoa berretsiz, ez zituztela tasa negatiboak registratuko, alegia. Gainera, 2022ra arte tasek bide horretan jarraituko zutela aurreratu zuen. Betako enpleguaren azken datua modu positiboan jaso arren, erakundeak adierazi zuen aparteko juntza-neurriak hartuko dituela datozen urteotan, koronabirusen pandemiaren aurka borrokatzen den ekonomia babesteko. Halaber, banku zentralak azpimarratu zuen herrialdeko ekonomiari juntzeko eskura dituen tresna guztiak erabiltzeko "konpromisoa" hartu duela, prezioen onkortasuna eta enplegu beteak lortzeko. Fed-ek bere aurreikuspen makroekonomikoak eguneratu u, eta 2020an AEBetako BPGd-a -% 6,5 jaitsiko dela uste du (abenduko aurreikuspena: +% 2). lanahi ere, 2021ean ekonomia +% 5 igotzea espero du, eta +% 3,5 2022an. Langabeziari gokionez, Fed-ek uste du herrialdeak % 9,3ko langabezia-tasarekin amaituko duela urtea benduko aurreikuspena: % 3,5). 2021ean eta 2022an, langabezia % 6,5ekoa eta % 5,5ekoa ngo da, hurrenez hurren.

Adierazlearen azalpena

deral Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru- litikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren onkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko akunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, plegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta e luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEAK: BPGd



Datuaren analisia

iroguneko BPGd-ak -% 3,6ko uzkuertzea izan zuen 2020ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiru abeteetan % 0,1 hazi ondoren; beraz, serie historikoko jaitsierarik handiena izan du, nahiz eta irostatek datuaren lehen kalkulua bi hamarren gora berrikusi duen.


19ko lehen hiruhilekoari dagokionez, Euroguneko BPGd-ak urte arteko -% 3,1eko beherakada in zuen; horrenbestez, urte arteko uzkurduarik handiena izan du 2009ko hirugarren hiruhilekotik, iroguneko BPGd-ak -% 4,5 atzera egin zuenean.

Adierazlearen azalpena

irostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta zkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten uen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean egiratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, la enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENEA



Datuaren analisia

artxoari dagokionez, Euroguneko industria-ekoizpenak -17,1 egin zuen behera apirilean (martxoan, -11,3), koronabirusaren ondorioz Europa osoan ezarritako konfinamendu-neurrien bigarren abetea. Hona hemen hileko jaitsieraren arrazoiak: kontsumo-ondasun iraunkorren % 28,9ko herakada, kapital-ondasunen 26,6ko jaitsiera, bitarteko ondasunen % 15,6koa, kontsumo-ondasun -iraunkorren % 11,9koa eta energiaren % 4,8koa.

te arteko datuetara ekarrita, industria-ekoizpenaren jaitsiera % 28koa izan zen txanpon karraren esparruan, kontsumo-ondasun iraunkorren ekoizpenak % 47,7 behera egin zuelako, pital-ondasunek % 40,9, bitarteko ondasunek % 25,5, kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek % 14 a energiak % 12,8.

Adierazlearen azalpena

ustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den presa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-tktorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia ten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
15/06	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	0,05
15/06	Txina	Urte arteko xehkakako salmentak	-0,02
15/06	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
15/06	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	-27,5
16/06	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
16/06	Alemania	Urte arteko KPIa	0,006
16/06	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	55,5
16/06	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	--
16/06	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
16/06	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	0,028
17/06	Japonia	Balantza komertziala	-¥1041.2b
17/06	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	0,006
17/06	Eurogunea	Urte arteko KPIa	0,001
17/06	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	0,235
18/06	Eurogunea	EBZren hileko buletina	0
18/06	Espainia	Balantza komertziala	--
18/06	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	0,001
18/06	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
19/06	Japonia	Urte arteko KPIa	0,002

IRENTA ALDAKORRA

ken asteetako igoera handien ondoren, munduko burtsek jaitziera barmenak izan dituzte aste honetan. Izan ere, inbertitzaileak zkatzen hasi dira koronabirus kasuen gorakadaren aurrean, merikan eta Afrikan batez ere. Horrek eta "V" formako susperraldi gar baten inguruko Fed-en baikortasunaren apaltzeak burtsaren ikuntza hori eragin dute. AEBetan, datuek kutsatuen kopuruaren zkundea berretsi zuten, bost astez behera egin ondoren, skonfinamenduarekin eta herrialdean egindako protestekin bat irriz, Texas eta Floridako estatuetan pandemiaren bigarren bolada ten arriskua berpiztu zuena. Aipatzekoa da ere Afrikako kasuen kortze-erritmo handia. Gainera, asteburu honetan, Txinak kingo handizkako merkaturik handiena itxiko duela iragarri du, eta rkatu horretatik gertu dauden Beijingo auzoak berrogeialdian jarri har izan ditu, langileei eta merkatu horretatik hurbil egon ziren rtsoneri eragin dien COVID-19aren agerraldi berri baten ondorioz. rtsonen bizitzak arriskuan egoteaz gain, birusak eragindako ekzioen berpizte batek blokeoak kendu dituzten ekonomien sperraldiaren erritmoa geldiaraz lezake, baita murrizketa berriak gin ere. Erreserba Federalak, joan den astean egin zuen bileran, 5 tonu zuhurrean hitz egin zuen aurreikuspen ekonomikoei buruz, i oraingo diru-politika aldatu ez bazuen ere, tasak 2022ra arte hintzat mugituko ez direla iragarri zuen. Ekonomia babesteko inik gabeko mezua eskaini zuen, bestela esanda. Diru-akundearen beheranzko aurreikuspen ekonomikoek hoztu egin jzten ekonomiaren susperraldi azkar baten itxaropenak, baita ertitzaileen kezkak areagotu eta AEBetako banku zentralak juntza-neurriak handitu beharko dituenaren zurrumurruak zabaldu 3. Makro ingurunean, Euroguneko hiruhileko BPGd-aren datu irrak aurreikuspenak hobetu zituen. AEBetan ere ntsumitzailearen konfiantza espero baino hobea izan zen.

IRENTA FINKOA:

iskuarekiko beldur handiagoak kalitatera egindako ihesa azaldu , eta "core" zorren erosketak nabarmen egin dute gora antikoaren bi aldeetan. Hala ere, Europako periferikoek erentzialak handitu dituzte Alemaniarekin, EBZren babesa oraindik ndia den arren. Kredituaren diferentzialak handitu egin ziren.

BISAK / LEHENGAIK:

bes-aktiboenganako gose handiagoak dolarraren eta yenaren alde in du, eta indartu egin dira gainerako gurutzaketen aurrean. Euroak lioa irabazi du liberaren aldean, Erresuma Batuak Brexitaren gozazioetan aurrera egiteko dituen zailtasunen aurrean. hengaien merkaturak, urrearen prezioaren igoerak, hiru astez raian behera egin eta gero, beldurra finantza-merkatuetara itzuli la erakusten du, baita petrolioaren prezioaren jaitzierak ere (-% 19), pandemiaren bigarren bolada baten inguruko kezkak eraginda. iBetan, gainera, petrolio gordinaren inbentarioen igoera espero na baino handiagoa izan zen.

INDIZEAK	2020/06/12	Aldaketa Ald 2020 Astean	
IBEX	7.292,70	-% 7,37	-%23,63
EUROSTOXX 50	3.153,74	-% 6,81	-%15,79
ALEMANIA	11.949,28	-% 6,99	-% 9,81
INGALATERRA	6.105,18	-% 5,85	-%19,06
FRANTZIA	4.839,26	-% 6,90	-%19,05
ITALIA	20.623,42	-% 6,29	-%19,53
S&P 500	3.041,31	-% 4,78	-% 5,86
DOW JONES	25.605,54	-% 5,55	-%10,28
NASDAQ 100	9.663,77	-% 1,63	%10,66
NIKKEI 225	22.305,48	-% 2,44	-% 5,71
SHANGHAI	2.919,74	-% 0,38	-% 4,27
MSCI WORLD	2.164,46	-% 4,51	-% 8,23
MSCI GORAKORRAK	987,01	-% 1,56	-%11,45

Gobernuen tasak	2020/06/12	Aldaketa Astean	Ald 2020
2 urte			
ALEMANIA	-0,67	-7	-7
ESPAINIA	-0,34	0	5
AEB	0,19	-1	-138
5 urte			
ALEMANIA	-0,66	-11	-18
ESPAINIA	-0,03	6	5
10 urte			
ALEMANIA	-0,44	-16	-25
ESPAINIA	0,59	4	13
AEB	0,70	-19	-121
Kreditu-spreada (op) 2020/06/12		Aldaketa Astean	Ald 2020
ITRX EUROPE (5A)	69,37	11	25
ITRX EUR XOVER (5A)	398,47	61	192

Dibisak	2020/06/12	Aldaketa Astean	Ald 2020
\$/€	1,13	-% 0,32	% 0,37
Yena/€	120,89	-% 2,28	-% 0,73
gpb/€	0,90	% 0,71	% 6,02

Lehengaiak	2020/06/12	Aldaketa Astean	Ald 2020
BRENT	38,46	-% 6,49	-% 42,10
URREA	1.730,75	% 2,71	% 14,07

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.